



ELEBIDE

2009^{ko}

JARDUERA-TXOSTENA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA



ELEBIDE

2009 KO
JARDUERA-TXOSTENA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



eLEBIDE

Euskara Eskubidua bermatzen duen zerbitzu
servicio para la garantía de Derechos Lingüísticos

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2010

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitaraldia: 1.a, 2010eko iraila

Ale-kopurua: 2.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskara.euskadi.net/elebide

Azala: Antton Olariaga

Diseinua: Junkal Motxaile

Fotokonposaketa: Composiciones RALI, S.A.
Costa 8-10, 7.ª - 48010 BILBAO

Inprimatzailea: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Carretera Lutxana-Erandio, 24-A. Erandio-Goikoa (Bizkaia)

ISSN: 1889-4585

L.G.: BI 928-2009

AURKIBIDEA

ELEBIDE: Hitzunen eskubideen bermea helburu	
Lurdes Auzmendi Aierbe, Hizkuntza Politikarako sailburuordea	7
ELEBIDE: Sarrera	9
2009KO JARDUERA-TXOSTENA	
Elebideren hirugarren urtea	13
ERANSKINAK	31



ELEBIDE

HIZTUNEN ESKUBIDEEN BERMEA HELBURU

LURDES AUZMENDI AIERBE HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEA

«Hizkuntza eskubideak» kontzeptua Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren bidez ezagutarazi zen. Adierazpen hori Bartzelonan onartu zen 1996an eta UNESCOk, Pen Klubek eta erakundez kanpoko erakunde batzuek izenpetu zuten, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala osatzeko asmoz.

Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 1. artikulua 2. atalean argi eta garbi esaten denez, «hizkuntza eskubideak batera gizabanakoenak eta taldeenak dira». Hots, herritarrak dira eskubide horien titularrak, inola ere ez hizkuntzak, batzuetan aipatu den bezala. Egia esan, hizkuntza eskubideen gainean hitz egin beharrean askoz finago ibiliko ginateke hiztunen eskubideen gainean hitz egingo bagenu.

Euskarak ez du eskubiderik. Erdarak ere ez. Euskaldunek eta erdaldunek, aldiz, bai.

Eskubide orori eginbehar bat dagokio. Herritarrek eskubideak badituzte, administrazioek arduratu behar dute eskubide horiek bermatzen. Sortu zenez geroztik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren xedea herritar/hiztun guztien Administrazioarekiko berdintasuna lortzea izan da. Berdintasun horretarantz Elebide zerbitzua abiarazi zen 2006an. Elebideren lehen asmoa da herritar guztiei, euskaldun zein erdaldun, tresna bat hurbiltzea kexak aurkezteko uste badeute hizkuntza eskubideak urratu zaizkiela.

Euskarak asko aurreratu du hogeita hamar urte honetan. Baina oraindik ere asko falta da Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza

ofizialen arteko egiazko orekara iristeko. Memoria honetan ikusiko den bezala, iragan urtean aurkeztu ziren 212 kexetarik euskara izan da xedea 209tan, erdararen erabilera bakarrik beste 3 kasuetan izan delarik. Esan gabe doa, Elebide berdin-berdin saiatu da hizkuntza bata zein bestea xede duten kexak aztertzen eta konpontzen.

Intzidentzia gehienak administrazio publikoei egin zaizkie, dela Estatuko Administra-

zioa, dela Eusko Jaurjaritza, direla foru aldundiak edo direla udalak. Hala ere, enpresa pribatuen portaerarekiko kexak aurkezteko joera igartzen da. Aipatu behar da erakunde eta enpresa gehienek jarrera oso irekia izan dela, Elebidek haietara jo eta gero maiz proposatzen zitzaizkien neurri zuzentzaileak onartu dituzte eta. Gizarteak elebitasuna normaltasun osoz onartu du eta hori aitortu behar da. Ereintzetan goxo egin gabe, pozteko arrazoiak badira.



ELEBIDE

SARRERA

Kultura Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan, urteetan bildutako esperientziak erakutsi du zein beharrezkoa den zerbitzu berezi bat izatea herritarren kontsultei eta erreklamazioei erantzuna emateko. Zerbitzu horrek hizkuntza eskubideei buruz sentikortu eta informatzen ditu herritarrak, haiek aurkeztutako kontsulta eta erreklamazioei erantzutearekin batera.

Horrela bada, Elebide, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua, uztailaren 29ko 150/2008 Dekretuaren bidez sortu zen zerbitzu organo-izaerarekin, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzari atxikita.

Dekretu horren 2. artikuluan esaten den bezala, Elebidek, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuak, hiru zeregin ditu: hizkuntza eskubideen gaineko sentikortasuna sustatzea, eskatzen duten herritarrei eskubide horien babesari buruzko informazioa eta aholkularitza ematea, eta, azkenik, eragindako sail, instituzio eta erakundeei lankidetzak eskaintzea, aipatutako eskubideak bete daitezzen.

Aipatutako eginkizun horiek betetzeko honako jarduera arloak aurreikusten dira:

- Ekintzak eta kanpainak sustatzea, herritarrak beren hizkuntza eskubideen gainean sentikortu eta informatzeko, baita



eskubide horien babeseta eta bermea artikulatzeko moduz ere.

- Hizkuntza eskubideen eta hizkuntza araudiaren gaineko informazioa eta aholkularitza ematea.
- Kexak jasotzen eta izapidetzea, hizkuntza eskubideak urratu direlako edo erabiltzearen ondorioz kalteak jasotzen direlako.
- Kexen objektu diren sail, instituzio eta erakundeei lankidetzeta eta aholkularitza tekniko eskaintzea, hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezzen; eta zerbitzuen kalitatean etengabeko hobekuntza sustatzea, hizkuntza arloan ere.
- Hizkuntza eskubideen babesarekin lotutako iradokizunak jasotzen eta izapidetzea.

Elebidek herritarren kexak, kontsultak eta iradokizunak jasotzerakoan, gertakariaren deskribapen zehatza hartzeaz gain, herritarren datu pertsonalak ere jasotzen ditu, betiere ere datu pertsonal horien babeseta ziurtatuz, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

Kexa, kontsulta edo iradokizuna jasotzen ondoren, izapidetzeko arrazoi juridikorik dagoen aztertzen du Elebidek; eta juridikoki bidezkoa bada, urraketa egin duen erakundearekin jarriko da harremanetan konponbidea bilatzeko.

Elebidek intzidentzia aztertzerakoan edota erakundearen argibideak ikusita, urraketarik ez dagoela ondorioztatzen badu, **intzidentzia itxi** egingo da eta herritarrari jakinaraziko zaio.

Kexa aurkeztu zaion erakundeak hizkuntza eskubideak urratzen dituen gertakaria konpondu edo konponbidean jartzen badu eta herritarrak erantzuna onartzen badu, Elebidek intzidentzia itxi egiten du, **erantzuna egokitzat** jota.

Aldiz, kexa aurkeztu zaion erakundeak erantzunarekin ez badu eskubide urraketa konpondu edota herritarren eskubideak ezin badira asebeten, Elebidek intzidentzia itxiko du, **erantzuna desegokitzat** jota.

Dena den, gerta daiteke erakunde batek ez erantzutea Elebidek bidalitako jakinarazpeni. Arlo publikoko erakundeei hiru jakinarazpen bidaltzen zaizkie, eta arlo pribatukoei, aldiz, jakinarazpen bakarra. Kasu horietan, intzidentzia



itxi egingo da **erantzun gabe** geratzen dela adieraziz, eta herritarrari jakinaraziko zaio.

150/2008 Dekretuak Elebide zerbitzu administratibo bezala sortzea aurreikusi bazuen ere,

moldaketa tekniko batzuk egin beharra zegoen hori guztia aurrera eramateko; beraz, 2009ko azken hiruhilekoan abiatu da bere eraginkortasun guztiarekin.



2009ko JARDUERA-TXOSTENA

ELEBIDEREN HIRUGARREN URTEA

Intzidentzia kopurua


2009. urtean Elebidek 225 intzidentzia erregistratu ditu; beraz, aurreko urteko datuekin —308 intzidentzia— alderatuz gero, %27 gutxitu da Elebidera iritsi den intzidentzia kopurua.

Jaitsiera hori, ordea, ezin lotu dezakegu bakarrik herritarren eskariarekin. Sarreran aipatu dugun moduan, Elebidek zenbait egokitzapen egin behar izan ditu zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz, eta horrek ere eragina izan du intzidentzien kopuruari begira.


Intzidentziak jasotzeko bidea

Hizkuntza Politikorako Sailburuordetzak 2008an intzidentziak web orriaren bidez aurkezteko aplikazioa jarri zuen martxan, eta urte horretan 163 intzidentzia (%52,6) jaso ziren aplikazio berri horren bidez. Oostera, 2009an 147 intzidentzia aurkeztu dira web orriaren bidez; beraz, 2009ko intzidentzia kopurua gutxitu egin bada ere (beti ere kopuru osoa gutxitu egin dela kontuan hartuta), bide hori erabili duten herritarren portzentaia %65 izatera pasa da.

1. grafikoa: Intzidentziak jasotzeko bideak



2. grafikoa: Intzidentzia aurkeztean erabilitako hizkuntza



Datu horiek gogoan, ondorioztatu daiteke prozeduraren kudeaketa automatizatu hobetzeaz gainera, bide telematikoak erabiltzearen alde egindako ahaleginak harrera bikaina izan duela.

Hala ere, Elebiderekin web gunearen bitartez harremanetan jartzeko bideak erraztea oso garrantzitsua bada ere, gainerako bideak ere erabili dira. Hala nola, posta elektronikoen bidez 69 intzidentzia (%31) jaso dira, posta arruntaren bidez zazpi intzidentzia (%3), eta azkenik, telefonoz bi intzidentzia (%1) bakarrik.

Beraz, nabarmentzekoa da Elebide zerbitzura jotzen duten herritarren artean kanal berri eta automatikoak erabiltzeko joera handituz doala, posta arrunta eta telefonoaren kaltetan.

Intzidentzia aurkeztean erabilitako hizkuntza

2009. urtean zehar Elebidera jo duten 225 herritarretatik, 214k euskaraz egin dute; eta gainerako 11k, gaztelaniaz.

Elebidera gaztelaniaz jo duten 11 kasu hauetatik, hiru herritarrek adierazi dute gaztelania erabiltzeko eskubidea urratu zaiela; eta bes-

te zortzi kasutan, nahiz eta kexa gaztelaniaz aurkeztu, oinarrian, euskara erabiltzeko eskubidea urratu izanak eragin dio kexari. Elebidera jotzeko euskara aukeratu duten guztiek, ostera, hizkuntza hori erabiltzeko eskubidea urratu zaie- la adierazi dute.

Izapidetutako Intzidentzien tipologia

2009. urtean Elebiden izapidetu diren intzidentzien sailkapena, tipologiaren arabera, hauxe da:

Kexak	212
Kontsultak	10
Eskaerak	2
Iradozikunak	1


Kexa horietako gehienak bi gai hauen inguru-rukoak izan dira: Administrazioarekin, ahoz zein idatziz, aukeratu den hizkuntzan harremanak gauzatu ezina eta errotulazioan antzematen diren hutsuneak.

Kontsultei erreparatuta, berriz, gehienak herritarrek dituzten hizkuntza eskubideei buruz galde- tzeko izan ziren, administrazioaren aurrean zenba- teraino eskatu dezaketen euskararen erabilera.

Eskaerei helduta, batean, IT txartelen mo- duluak zuzen itzuliak izan daitezela eskatu dute; eta bestean, ikastetxe bateko sukaldari lanpos- tuetan euskara ezinbesteko baldintza izatea.

Iradozikunei dagokienez, herritar batek, Elebideren bitartez, Ertzaintzan arreta euskaraz

3. grafikoa: Izapidetutako Intzidentzien tipologia



ematea bermatzeko bi proposamen aurkeztu ditu, Herrizaingo Sailari luzatzeko.

Izapidetutako kexen tipologia

2009. urtean Elebiden izapidetu diren 212 kexen tipologia aztertzerakoan, bi kexa mota bereiz ditzakegu: batetik, herritarrek ahozko zein idatzizko harremanetan atzeman dituzten urraketak; eta, herritarrek paisaian atzeman dituzten urraketak.

Herritarrek harremanetan atzeman dituzten urraketeki dagokienez, guztira 128 kexa jaso dira:

- 92 kexa idatzizko harremanei buruz.
- 26 kexa ahozko harremanei buruz.


- 10 kexa idatzizko eta ahozko harremanei buruz.

Bestalde, paisiarekin lotura duten 79 kexek, bide, kale eta lan seinaleei egiten diete erreferentzia oinarrian; eta, bost kasutan, erakunde batekin izandako harremanean gertatutako urraketarekin batera, kexan adierazi da erakundeko paisaian ere badirela hutsuneak.

Urraketa zein hizkuntzatan gertatu den

Izapidetutako 212 kexetatik 209tan eus-kara erabili nahi izan duenak nozitu du eskubide urratzea, eta 3 kasutan gaztelania erabili

4. grafikoa: **Kexen tipologia**





nahi izan duenak. 2008. urteko datuekin konparatzen badugu, datuak oso-oso antzekoak dira.


Euskara eta gaztelania Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak direla aitortzen dute Autonomia Estatutuaren 6. artikulua eta euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 3. artikulua. Harrezkero, euskararen erabilera normalizatzeko aurrerapen handiak egin badira ere, jasotzen den kexa kopuru honek agerian uzten du oraindik badela zer hobetu euskara normaltasunez erabiltzeko.



Beraz, euskararen eta gaztelaniaren arteko benetako berdintasuna lortzeko, behar-beharrezkoa ikusten da ekintza eta neurri positiboak hartzen jarraitzea.

Gaztelania erabiltzeko eskubidea urratu zaiela adierazteko kexak, ordea, gutxiago dira, hiru guztira. Kexa hauek administrazioarekiko idatzizko harremanetan gertatu dira: bi, udal administrazioan; eta hirugarrena, Osakidetzan.

Horrela, bada, hiru kasu hauetan euskara hutsean jardun da, eta Administrazioaren mezuak gaztelaniaz jaso nahi dituzten herritarren hizkuntza eskubideak ez dira bermatu.

5. grafikoa: Urraketa zein hizkuntzatan gertatu den



6. grafikoa: **Kexak esparruaren arabera**7. grafikoa: **Esparru publikoko kexak**

Kexak esparruaren arabera

Kexen % 82 (173 intzidentzia) esparru publikoan gertatutako eskubide urratzeak dira, eta %18 (39 intzidentzia) esparru pribatuan gertatutakoak.

Esparru publikoko kexak

Herri administrazio eta erakundeen kasuan, 47 kexa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eta bere erakunde eta sozietateei zuzendutakoak izan dira, 91 kexa Udal administrazio eta euren menpeko erakundeei, 20 kexa Estatuko administrazioei, eta 15 kexa foru aldundi edo euren erakundeei zuzendutakoak.

Beraz, intzidentzia kopuruari eta ehunekoei erreparatzen badiegu, nabarmentzekoa da EAEko Administrazio Orokorrari zuzendutako kexak gutxituz doazela. Baina Udal administrazioari erreparatzen badiogu, kexa kopurua 11 gehiago izan badira ere, orokorrean kexa gutxiago egon direnez, ehunekoa igo egin da. Aldiz, foru aldundi eta Estatuko Administrazioari dagokionez, datuak ez dira asko aldatu.



Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra


Euskal Autonomia Erkidegoko Administra-
zio Orokorren baitan Eusko Jaurlaritza eta gai-
nerako erakundeak bildu ditugu. Horrela, Eusko
Jaurlaritzari zuzenduta 28 kexa aurkeztu dira,
Osakidetzari 10, Euskotren-i hiru, Euskal Trenbi-

de Sareari bi, Euskal Herriko Unibertsitateari
hiru, eta EITBri zuzenduta kexa bat.


Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzari zuzendutako kexen ti-
pologia, halaber, gainerako euskal herri adminis-
trazioek eragindakoen antzekoa da: besteak

8. grafikoa: **EAEko administraziora zuzendutako kexak**



9. grafikoa: **Eusko Jaurlaritzara zuzendutako kexen emaitzak**



beste, herritarrari zuzeneko arreta eskaintzera-koan gaztelania bakarrik erabili izana, gaztelania hutsean egindako idatzizko komunikazio eta jakinarazpenak; euskarari gaztelaniaren pareko tratamendua ez ematea eta euskarazko jakinarazpenetan akatsak agertzea.


Eusko Jaurlaritzari zuzendutako 28 kexa hauetatik 18k erantzun egokia izan dute; bostek erantzun desegokia; beste biri dagokienez, kexa aurkeztu zaion erakundeak ez die erantzun, eta hiru kasutan Elebidek kexa aztertu ondoren urraketarik ez dela egon ebatzi du.

Osakidetza

Osakidetzak jarraitzen du kexa gehien eragiten duen erakundea izaten, nahiz eta berari

zuzendutako kexa kopurua 10 izatera pasa den (2008an, 19 izan ziren). Hauek dira Osakidetzari aurkeztutako kexa nagusiak: behin-behineko eta behin betiko errotuluak gaztelania hutsean egotea, telefono bidezko arreta gaztelania hutsez ematea, euskaraz dakiten mediku eta langile nahikoa ez edukitzea, gaztelania hutsezko dokumentuak erabiltzea, txandak gogorazteko sms-ak gaztelania hutsez bidaltzea, web orriak gaztelania hutsez egotea, eta Enplegu Publikorako Eskaintzarako euskarazko dokumentazioa gaztelaniazkoa baino geroago bidaltzea. Bestalde, 10 kexa hauetatik bat gaztelania erabiltzeko eskubidea urratzeagatik izan da, hots, Osakidetzaren zerbitzu konkretu batean pegatina batzuk euskaraz bakarrik egoteagatik.

10. grafikoa: **Osakidetzara zuzendutako kexen emaitzak**





Osakidetzari zuzendutako kexa guztiak itxita daude: 7ri irtenbide egokia eman die Osakidetza, biri irtenbide desegokia, eta azkenari dagokionez, prozedura eten egin dugu, herritarrek ez baitu erantzun informazio gehiago eskatu zaionean.

Euskotren

Hiru kexa jaso dira Euskotreni zuzenduta, horietatik bi hautaketa prozesua gaztelania hutsez egiteagatik azpikontratutako enpresa baten bidez; eta hirugarrena, geltoki batean oharrak gaztelania hutsez jartzeagatik. Hiru intzidentzia hauetatik, Euskotrenek bi egoki erantzun ditu eta bat desegoki.

Eusko Trenbide Sarea

Eusko Trenbide Sareari zuzenduta bi kexa jaso dira: bata, egunkari batean iragarki bat gaztelania hutsez jartzeagatik; eta bestea, web orrian enpresaren helbidea gaztelania hutsez izateagatik. Egoki erantzun ditu bi intzidentzia horiek.

Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Herriko Unibertsitateari zuzenduta hiru kexa jaso dira. Arrazoiak hauek izan dira:

herritarren zuzeneko eta telefono bidezko arreta gaztelaniaz bakarrik ematea, web orriko zenbait informazio gaztelania hutsez jartzea, eta inprimaki batzuk ere gaztelaniaz bakarrik egotea. EHUK kexa bati erantzun desegokia eman badio ere, beste biei erantzun egokia eman die.

EITB

EITBri zuzenduta kexa bakarra jaso da, Bilboko eraikinean obretako seinaleak gaztelania hutsean jartzeagatik, eta Elebidek erantzun desegokia jaso du.

Udal Administrazioa

Udal Administrazioaren kasuan ere, udalak eta euren erakundeak bildu ditugu, eta goian aipatu bezala, 2008tik 2009ra intzidentzia kopurua gutxi igo bada ere, kontuan hartu behar da Elebidek orokorrean jaso duen intzidentzia kopurua %27 jaitsi dela. Beraz, kopuruaren aldetik, kexa kopurua asko igo ez bada ere, portzentajeak %18,5 egin du gora.

Arabako udalak

Udal Administrazioei zuzendutako 91 kexa horietatik 5 Arabako udalei dagozkie. Bi kexa

Barrundia eta Donemiliagako Udalei zuzendutakoak izan dira, eta bietan udalak herritarrekin idatzizko harremanak gaztelaniaz bakarrik burutu izanak eragin dio kexari. Beste hiru kexa Gasteizko Udalaren menpeko diren hiru erakunderi zuzendutakoak izan dira: zehazki, CETIC, Erdu Boluntarioritza Agentzia eta TUVISA.

Barrundia eta Donemiliagako Udalek erantzun egokia eman diete jasotako intzidentziei, eta Gasteizko Udalaren lehenengo bi intzidentziei dagokienez, Elebidek erantzun egokia jaso du, eta azkenak, TUVISARI dagokionak, ez du erantzunik jaso.

Bizkaiko udalak

Bizkaiko udalei zuzendutako kexak 73 izan dira guztira, hots, EAEko udal guztiei zuzendutakoen % 80a. Dena den, % 80ko datu hori interpretatzerakoan, oso kontuan eduki behar da Bizkaia beste bi lurralde historikoek baino biztanle gehiago daukala. Beraz, nahiko logikoa da Bizkaia Gipuzkoak eta Arabak baino intzidentzia gehiago jasotzea. Kexak ipintzeko arrazoiak direla-eta, goian Gipuzkoarentzat aipatu diren berberak dira.

Bizkaiko udalei zuzendu zaizkien 73 kexa horietatik, 40 Bilboko Udalarentzat edo bere

sozietateentzat izan dira. Kexa horien tipologiari dagokionez, bideetako, kaleetako eta bestelako seinaleak gaztelania hutsean egoteagatik izan dira gehienbat, nahiz eta herritarren ahozko nahiz idatzizko arreta gaztelania hutsean egiteagatik ere izan diren. 40 kexa horietatik, 33ri erantzun egokia eman badie ere, aipatu behar da kasu gehienetan Bilboko Udalak formula orokor bat erabiliz erantzun duela.

Bilboko Udalarik zuzendutako bi kexak bakarrik jaso dute erantzun desegokia, bi geratu dira erantzun gabe, eta hiru kasutan urraketarik ez dagoela ebatzi du Elebidek.

Udalez udal aztertuz gero, kexa bakarra jaso eta egoki erantzun duten udalak hauek dira: Arrigorriaga, Berango, Gautegiz-Arteaga, Gernika, Gorniz, Santurtzi eta Sopuerta.

Aldiz, kexa bakarra jaso, baina erantzun gabe utzi duten udalak Amorebieta-Etxano eta Lanestosa izan dira. Eta Abanto-Zierbenak ere kexa bakarra jaso badu ere, kasu horretan urraketarik ez da egon, Elebideren iritziz.

Getxok bi kexa ditu, kexa bati erantzun egokia eman dio, eta bigarrenean urraketarik ez dela egon ondorioztatu da.



Barakaldoko udalak ere bi kexa jaso ditu, eta kexa bati erantzun egokia eman badio ere, beste kexa oraindik itxi gabe dago.

Ortuellak hiru kexa jaso ditu: biri erantzun egokia eman die, eta hirugarrenari desegokia.

Abadiñok ere hiru kexa jaso ditu, eta hirurei erantzun egokia eman die.

Durangok sei kexa jaso ditu, eta hiru kexari erantzun egokia eman badie ere, beste hirurak ez ditu erantzun.

Erandiok, azkenik, zazpi kexa jaso eta sei erantzun gabe utzi ditu; erantzun dion kexa bakarrari erantzun desegokia eman dio.

Gipuzkoako udalak

Gipuzkoako udalek guztira 13 kexa jaso dituzte, 11 euskara erabiltzeko eskubidea urratzeagatik eta bi gaztelania erabiltzeko eskubidea urratzeagatik. Lehenengoei dagokienez, arrazoiak hauek izan dira nagusiki: dokumentazioa, idatziak eta jakinarazpenak gaztelania hutsean egotea, iragarkiak eta trafiko seinaleak gaztelania hutsean ipintzea, TAOko aparatuen tiketak gaztelania hutsean egotea eta ahozko arreta euskaraz ezin emana.

Gaztelania erabiltzeko eskubidea urratu izana Elgoibarko eta Zarauzko udalei egotzi zaie. Elgoibarren, herritarrei euskara hutsezko idatzi bat bidali izanak eragin dio kexari; Zarautzen, aldiz, herri barruko bide seinale batzuk euskara hutsean jarri izanak.

Guztira 13 kexa izan badira ere, sei udali eragiten diete, eta sei horietatik lauk egoki erantzun diete jasotako kexa guztiei (Debak hiruri, Donostiak biri, Eibarrek bati eta Elgoibarrek beste bati).

Zarauzko Udalak kexa bakarra jaso badu ere, erantzuna desegokia izan da; Erreterriak bost kexa jaso ditu: bi desegoki erantzun ditu eta gainerako hirurak ez ditu erantzun.

Foru Administrazioa

Foru Administrazioei dagokienez, kexa kopuruak behera egin du: 2008an 20 aurkeztu ziren, eta 2009an, ostera, 15. Arabako Foru Aldundiak 2008an hiru jaso zituen, eta 2009an ez du bat bera ere jaso.

Bizkaizko Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundiak, 2009an 2008an baino kexa bat gehiago jaso du, zortzi kexa, ale-

gia. Hala ere, zehaztu behar da zortzi kexa hauetatik erdiak Bizkaiko Aldundiaren menpekoa den Lantik, S.A.ri zuzendutakoak izan direla. Bizkaiko Foru Aldundiari zuzenean jarritako lau kexa horien arrazoiak hauek izan dira: Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren likidazioa gaztelania hutsean bidaltzea, web orri bateko informazioa gaztelania hutsean egotea, eta bide seinale edo bestelako seinaleak gaztelania hutsean jartzea. Aipatzekoa da lau kexa hauetatik lauak daudela itxita, eta denek erantzun egokia jaso dutela.

Lantik S.A.ri zuzendutako kexak ere lau izan dira, baina guztiak arrazoi beragatik: opo-saketetarako hautaketa probak gaztelania hutsean egiteagatik. Aurreneko bi kexei erantzun desegokia eman die, eta erantzun egokia azkeneko biei.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia, ordea, 2008an 10 kexa jasotzetik, 2009an zazpi jasotzera pasada. Bizkaiko Foru Aldundian bezala, hemen ere bost kexa aldundiari zuzendutakoak izan dira, eta bi aldundiaren menpeko erakundeei, Lurralde-bus eta BIDEGI, hain zuzen ere. Horietan ere


kexa jartzeko arrazoiak hauexek izan dira: gaztelania hutsezko jakinarazpen edo komunikazioak, euskarazko arretarik eza eta gaztelania hutsezko bide seinaleak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak jasotako bost kexei erantzun egokia eman die, eta Lurralde-bus eta BIDEGIk ere erantzun egokia eman die te eurei zuzendutako kexei.

Estatuko Administrazio Orokorra

Estatuko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde eta sozietateei zuzendutako kexek —RENFE, ADIF, Correos...— behera egin dute: 2008an 29 kexa jaso baziren, 2009an 20 izan dira. Kexak, nagusiki, bi esparru hauetakoak dira: euskaraz arreta pertsonala edo telefono bidezkorik ez ematea, eta gaztelania hutsezko jakinarazpenak.

Estatuko administrazioei zuzendutako 20 kexak itxita daude. Kexa horietatik, hamarri erantzun egokia eman zaie, zazpiti desegokia, bi kexatan urraketarik ez dela izan ondorioztatu du Elebidek, eta bakarra izan da erakundearen aldetik erantzun gabe geratu dena.

11. grafikoa: **Estatuko administrazioaren kexen emaitzak****Esparru pribatuko kexak**

2009. urtean Elebiden aurkeztu diren 212 kexen artetik, 39 esparru pribatuari dagozkio. Esparru horretan, irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteak eta jarduera profesionali lotutako erakunde eta enpresak kokatzen dira. Urraketak arlo hauetan gertatu dira: kultura, interes orokorreko zerbitzuak, merkataritza gune handiak, aisialdia, eta bestelakoak.

Ikusten denez, esparru pribatuari dagozkion kexak ere jaso ditu Elebidek; nolana ere, alor horri dagokionez, kontuan izan behar dira arlo horretako hizkuntza eskubideak bermatze aldera argitaratu ziren abenduaren 22ko 6/2003 Legea —Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena—, uztailaren 1eko 123/2008 Dekre-

tua —Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa— eta uztailaren 20ko 204/2010 Dekretua —Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko Dekretua aldatzekoa—.


Uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuak bigarren artikuluan adierazten du bere aplikazio-eremua:

- EAEn komunikazio sareak ustiatzen dituzten komunikazio operadoreak, zerbitzu unibertsala ematen dutenak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan jendearentzako telefono zerbitzuak ematen dituztenak.
- EAEn bidaiarien trenbideko garraio publikoko zerbitzuak ematen dituzten tren-enpresak.

- EAEn bidaiarien errepideko garraio publikoko erregularreko zerbitzuak ematen dituzten enpresak.
- EAEn bidaiarien aire garraioko zerbitzu erregularrak ematen dituzten enpresak, eta EAEn aireporturen batean bidaiarien lehorreko asistentzia zerbitzuak ematen dituztenak.
- EAEko kontsumitzaileak eta erabiltzaileak energia elektrikoz hornitzen dituzten banaketa enpresak edo merkaturatze enpresak.
- EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileei saltzeko, gas naturala merkaturatzen duten enpresak.
- EAEn kokatuta dauden jendeari begirako, produktuak saltzeko edo zerbitzuak emateko establezimenduak, baldin eta baldintza konkretu batzuk betetzen badituzte.
- EAEn jendeari begirako establezimendua duten kreditu erakundeak.
- EAEn etxebizitzak saldu edo alokatzen dituzten profesional, enpresa edo erakuntza obren sustatzaileak.

Hiru arau horiek kontsumitzaileei eta erabiltzaileei begira hizkuntza eskubideak bermatzeko betebeharrak areagotu eta zehazten dituzten arren, epeak ere ematen zaizkie erakunde pribatuei lege xedapen horietako neu-

12. grafikoa: **Esparru pribatuko kexak**





rrietara egokitzeko. Beraz, epe horien arabera, erakunde gehienak ez zeuden behartuta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzera. Gainera, esan behar da, uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuaren 18. artikulua, abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 50.6 artikuluan araututako zigorrak jartzeko aukera aurreikusten badu ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ez duela inolako asmorik enpresa pribatuei zigor horiek ezartzeko.

Hala ere, Elebidek kexak bideratu egin ditu, erakunde pribatuak neurriak ezarriz eta bideratuz joan daitezzen. Bide batez, aintzat hartu beharra dago enpresa hauek euren bezeroei zerbitzua elebitan emateko egiten duten ahalegina.

Esparru pribatuko kexa gehienak interes orokorreko zerbitzuak eta merkataritza eta aisialdi zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei zuzendutakoak izan dira: adibidez, telefono mugikorren enpresak eta merkataritza gunek.

LABURBILDUZ


2009an, Elebidek izapidetutako 225 intzidentzietatik 223 itxita daude jadanik, hau da, informazioa emanda eta espedienteak ebatzita; gainerako bi intzidentzien kasuan, azken hilabeteetan jasotakoak, prozedurek irekita jarraitzen dute eta beren bidea egingo dute.

Kontsultei dagokienez, jaso diren 10 kontsultak itxita daude; izan ere, Elebidek kontsulta bat jasotzen duenean, informazioa bildu ondoren, jakinarazpena bidaltzen dio herritarrari eskatutako informazioarekin. Eskaerei dagokienez ere, biak itxita daude. Eta jasotako iradokizun bakarrak oraindik irekita jarraitzen du.

Kexei dagokienez, bost kasu bereiziko ditugu emaitzen ikuspegitik. Kontuan hartu behar da 212 kexetatik bat oraindik ere irekita dagoela:

- Kexari **irtenbide egokia** eman zaiotanean, alegia, konponduta edo konponbidean egotea. 2009an 212 kexetatik, 126 kexa itxi dira irtenbide egokia emanda.
- Kexak **irtenbide desegokia** izatea, hots, urraketa konpontzerik ez badago edo erakundeak konpontzeko konpromisorik

13. grafikoa: **Intzidentzien egoera**




azaldu ez badu; 2009an 28 kexa izan dira irtenbide desegokiarekin itxi behar izan direnak.

- Kexak **erantzun gabe** gelditzea, hau da, erakunde publikoek hiru jakinarazpen jaso ondoren erantzun ez dutenean, eta erakunde pribatuen kasuan, jakinarazpen bat jaso ondoren erantzun ez dutenean. Horrela, Elebidek 29 kexa itxi behar izan ditu, kexa jaso duen erakundeak erantzun ez diolako.
- Araudiaren arabera kexa aztertu ondoren edo kexa aurkeztu zaion erakundeak

emandako argibideen ondorioz **urraketa-rik ez dagoela** uste izan badu, intzidentzia itxi egin du Elebidek. 2009an 26 kexa izan dira urraketa ezagatik itxi direnak, baina kontuan izan behar da horrela itxitako intzidentzia asko arlo pribatukoak izan direla, ez zeudelako behartuta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzera.

- Prozedura bi kasutan geratu da etenda, Elebide datu gehiagoren beharrean herriarrarekin harremanetan jartzen saiatu eta herriarraren erantzunik jaso ez denean.

14. grafikoa: **Kexei emandako irtenbidea**





ERANSKINA

I) KEXAK EUSKARA ERABILTZEKO ESKUBIDEA URRATZEAGATIK


A. ESPARRU PUBLIKOA

A.1. EAEKO ADMINISTRAZIO OROKORRA

A.1.1. EUSKO JAURLARITZA

Intzidentzia zenbakia	Ekonomia eta Ogasun Saila	Urraketa mota	Egoera	Eraitza
20090171	EUSTATen izenean etxera joandako inkestazalea	Ahozko eta idatzizko harremana	Itxita	Urraketa eza

Intzidentzia zenbakia	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	Urraketa mota	Egoera	Eraitza
20090012	Eraikuntza eta Hiri Lanetarako salneurrien datu basea eta Gidaliburua	Idatzizko harremana	Itxita	Egokia



Intzidentzia zenbakia	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	Urraketa mota	Egoera	Emailza
20090016	Bizkaiko Eraikuntza Lan Hezkuntzako Institutua. Urtarrilaren 12an egunkarietan argitaratutako iragarkia eta web orria	Paisaia – idatzizko harremana	Itxita	Egokia
20090027	Prentsa bulegoak posta elektronikoz bidaltzen dituen mezuen gaia eta euskarazko artxiboren izena eta fax bat	Idatzizko harremana	Itxita	Egokia
20090078	Irlandan, Ingalaterran eta Kanadan egonaldiak egiteko argitaratutako beka deialdian bidalitako dokumentazio guztia	Idatzizko harremana	Itxita	Egokia
20090100	Botikazar Institutuaren iragarkia egunkarietan	Idatzizko harremana	Itxita	Egokia
20090111	Miguel de Unamuno Institutuan matrikulatzeko inprimakia	Idatzizko harremana	Itxita	Desegokia
20090179	Armeria Eskolan (Eibar) eta IMHn (Elgoibar) langabetu eta langileentzako ikastaro gehienak gaztelania hutsez	Ahozko eta idatzizko harremana	Itxita	Desegokia
20090210	D ereduko batxilergoko filosofia irakasle baten euskara maila falta	Ahozko eta idatzizko harremana	Irekita	Urraketa eza
